



II Eranskina – P10

IKT Ikastetxe Eredua garatzeko Proiektua

Deialdiaren xedea

Gehienera ere Haur, Lehen zein Bigarren Hezkuntzako 115 ikastetxe publiko hautatzea, 2009-2010 ikasturtean “IKT ikastetxe-eredua” proiektua garatu dezaten, jarraibide hauetan jasotako xedea, ezaugarriak eta baldintzak kontuan hartuta.

Era berean, 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteko deialdietan parte hartu zuten ikastetxeen artetik aukeratuak izango dira proiektuan jarraitzeko, proiektua gainditu zutenak, memoria ontzat eman zaienak eta ikasturtean zehar Ereduaren garapenean parte hartu dutenak, baldin eta horrela eskatzen badute eta jarraibide hauetan jasotako baldintzak betetzen badituzte. Kasu honetan, ez dute beharrezkoa izango III. Eranskina aurkeztea, bere ordez 08/09 ikasturtean egindako proiektuaren txostena aurkezten badute (VII. Eranskina) proiektuaren balorapena eta hobekuntza proposamena jasoz.

2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetan IKT Ikastetxe eredua proiektuan parte hartu eta datorren ikasturtean bi ikastetxe desberdinetan banatuko diren ikastetxeak, berraukeratuak izango dira honako prozedura hau jarraituz: 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetan izendaturiko IKT dinamizatzailea atxikituta gelditzen den sortutako ikastetxea, jarraipen proiektuduna bezala hartuko da, eta sortutako beste ikastetxeak lehentasuna izango du deialdi honetan aukeratu izateko, beti horrela eskatzen badu eta deialdiaren baldintzak betetzen baditu.

Esleipena

Hautatutako ikastetxeei irakasle erdi baten ordu-kredituak emango zaizkie, IKT ikastetxeko dinamizatzailea edukitzeko, IKT ikastetxe-eredua proiektuari lotutako ekintzak gauza ditzan. IKTen ikastetxeko dinamizatzaileak zeregin hauek izango ditu:

- Laguntza-zerbitzuen laguntzarekin, Hezkuntza Sailak zehaztutako IKT ikastetxearen heldutasun-eredua gauzatzeko ikastetxean gauzatuko den berriarazko plana jakinaraztea gainerako irakasleei.
- Ikastetxeak IKTei lotuta egiten dituen ekimenak dinamizatzea, koordinatzea eta ikuskatzea. Ekimen horiek guztiak IKT ikastetxearen heldutasun-eredutik eratorritako planaren barruan egongo dira eta Ikastetxearen Urteko Planean (IUP) jasoak.
- Ikastetxean IKTen erabilera pedagogikoa bultzatzea, bai eta hezkuntzako eragile guztien parte-hartzea ere teknologia horietan:



- IKTen hezkuntzako erabilerako jardunbide egokien eta ondo ateratako esperientzien argitalpena hedatzea ikastetxeko irakasleen artean, bai eta eremu eta etapa bakoitzean teknologia horiek erabiltzen eta egokitzen laguntzea ere.
- Parte hartu behar duen bileretan parte hartzea, hezkuntza-eragile guztiei IKTak erabiltzen laguntzeko, IKT ikastetxe-ereduak zehaztutako planaren barruan.
- Ikastetxerako ezarritako IKT heldutasun-maila lortzeko irakasleek eduki beharreko prestakuntza ibilbidea identifikatzea, gomendatzea eta kudeatzea, eta behar denean oinarritzko prestakuntza ematea.
- Ikastetxeak dituen baliabide teknologiko finko eta mugikorak erabiltzeko ordutegiak eta moduak zuzendaritza taldeari proposatzea. Baliabide teknologiko finko eta mugikorak noiz erabil daitezkeen jakiteko agenda egitea.
- Harreman teknikoak eta prestakuntza-harremanak, eta kontsulta eta aholkularitzakoak izatea laguntza-zerbitzuekin, heldutasun-ereduak ezarritako helburuen jarraipena egiteko eta helburu horiek lortzeko.

Ikastetxeak kontuan izan behar du, ahal den neurrian, ikastetxeko IKT dinamizatzaile kargua eta Premia planaren arduradunarena pertsona berean eror ez dadin, eta dinamizatzaileak ikastetxeko beste kargurik ez izatea. Hori posible ez bada, IKTKo dinamizatzaile lanera dedikatutako denbora deialdi honetan adostutakoa izatea bermatu beharko da.

Banaketa lurraldeka

EAEn, gehienera ere 115 proiektu berri aukeratu ahal izango dira. Deialdi honetara aurkezten diren ikastetxe publikoak koadro honen arabera banatuko dira:

Lurraldea	Guztira
Araba	19
Bizkaia	57
Gipuzkoa	39
Guztira	115

Lurralde batean onartutako eskaerak eskainitako plazak baino gutxiago badira, gainerako plazak beste lurralde batzuetara pasako dira.

Halaber, jarraitzeko hautatuko dira 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetan hasitako 220 proiektuetatik, urte horietako deialdien jarraibideetan jasotako xedeak, ezaugarriak eta baldintzak bete dituztenak, eta ebaluazio positiboa jaso ondoren, horrela eskatzen dutenak.

Berariazko baldintzak

Eskaera onartzeko jarraibide hauetako baldintza orokorrak eta jarraian ezartzen diren berariazko baldintzak bete beharko dira:



- a) "IKTen ikastetxeko dinamizatzaila" karguaren arduradunak berariazko zuzenezko zein Internet bidezko prestakuntza ekintzetan eta mintegietan parte hartzeko konpromisoa hartzea. Proiektuan parte hartuko duten ikastetxeak biltzeko, koordinatzeko eta aholkatzeko balioko dute mintegi horiek.
- b) Proiektuan lehenengoz sartzen diren ikastetxeak datorren ikasturtean zehar Hobekuntza Plana zehaztu beharko dute. Ikastetxe berriek eta jarraipena eskatzen dutenek, Ikastetxeko Urteko Planean (IUPean) sartu beharko dute Hobekuntza Plana. Plan horrek aspektu hauek zehaztu beharko ditu:
 - o Nola antolatuko diren ikastetxeak dituen baliabide teknologiko eta informatikoak ikasgelan era egokienean erabil daitezzen eta ahali keta irakasle gehienek erabil ditzaten.
 - o Nola antolatu eta sailkatuko dituzten material digitalak irakasle guztien eskura egon daitezzen.
 - o Zein zango den ikastetxeak bultzatuko duen prestakuntza-plana ezarrita dauden helburuak lortzeko, eta nork emango duen prestakuntza hori eta zein datetan.
- c) Ikastetxeko IKTen batzordea sortzea. Ikastetxearen baliabideen eta antolaketa-egituraren arabera, ikastetxe bakoitzak talde bat sortu beharko du IKTen ikastetxe-eredua abian jar dadila dinamizatzeko, bai eta irakasleek, ikasleek eta familiek parte hartzeko ere.
- d) Proiekturako egin beharreko jarduera guztiez gain, lehenengoz proiektuan sartzen diren ikastetxeak urriaren bukaera baino lehen Eredua, bere ezaugarriak eta proiektuan parte hartzeak ikastetxeari sortuko dizkion inplikazioak ezagutzeko prestakuntza-saioak antolatu beharko dituzte. Halaber, ikastetxeek Hobekuntza Planak entregatu beharko dituzte abenduaren 15a baino lehenago dagozkien Berritzeguneetan.
- e) Hobekuntza Plana Berritzeguneko IKT aholkulariak onartuko du eta, egokia ikusten ez duenean, ikastetxeari itzuliko dio edukia goiko puntuetan aipatutako baldintzetara egokitu dezan.
- f) Mailen lorpena:
 - o 2007-2008 ikasturtean lehenengoz deialdian sartu ziren ikastetxeek gutxienez 1 eta 2 mailak lortu beharko dituzte 2009-2010 ikasturtea amaitu baino lehenago.
 - o 2008-2009 ikasturtean lehenengoz deialdian sartu ziren ikastetxeek gutxienez 1 maila lortu beharko dute 2009-2010 ikasturtea amaitu baino lehenago.
- g) Aurkeztu beharreko dokumentazio orokorrari, modalitateko berariazko P10-1 eranskina gehitu beharko zaio.

**Baremoa**

1. Ikastetxeak IKTen eremuan duen inplikazio-maila (30 puntu gehienez)

a) Azken 3 ikasturteetan ikastetxean IKTen prestakuntza-planak egin dituzten ikastetxeak	10 puntura arte
b) Azken 3 ikasturteetan IKTen eremuan berrikuntza-proiektuak egin dituzten ikastetxeak	10 puntura arte
c) Kalitatearen kudeaketako proiektuetan (Kalitatea Hezkuntzan) parte hartu duten edo parte hartzen ari diren ikastetxeak	10 puntu

2. Ikasleek, ikastetxeko eskola-orduetatik kanpo, dituzten orduak ikastetxeko ordenagailuak erabiltzeko (gehienez 9 puntu)

Astean 10 ordura arte	4 puntu
Astean 11 ordutik 20 ordura arte	6 puntu
Astean 20 ordu baino gehiago	9 puntu

3. Ikasle zein familientzat ikastetxean bertan antolaturiko IKT ikastaro edo ekintzengatik. 9 puntura arte.



P10- 1 ERANSKINA

DATUAK ETA EGINDAKO IKT EKINTZAK

Ikastetxea.....Kodea.....

Udalerria Lurraldea

Ikasleek, ikastetxeko eskola-orduetatik kanpo, dituzten orduak ikastetxeko ordenagailuak erabiltzeko	
--	--

Azken 3 ikasturteetan ikastetxean egindako prestakuntza edo berrikuntza proiektuen zerrenda: IKT eremukoak, Kalitatearen kudeaketako eremuan edo ikasle zein familientzat antolatutako ikastaro edo ekintzak.	
Proiektua /Ekintza	Ikasturtea(k)

.....(a)n 2009ko.....(a)ren(a)n

Izenpetuta: Ikastetxeko Zuzendaria